

## GORA EUSKADI

Ta Askatasuna. Komeria dezente ibili dute hitz horiekin Espainiako komunikabide, alderdi eta auzitegiek. Terrorismo delitu ote diren ala iritzi delitu; Espainiako mugetatik kanpo esanak zigor daitezkeen ala ez. Bitartean, euskaldunok (euskal hiztunok) espektakuluaren aurrean barrez hasi (hain inozoak ote dira?) edo negarrez hasi (horrenbesteraino galdu al dute burua?), zer egin ez dakigula. Bai baitakigu oihu hori anbigua dela eta ez dagoela zirkunstantzia horietan esaleak esandakoa, esaleak goraiapatutakoa, zeharo eta zehazki mugatzerik, are gutxiago idatziz.

Komunikabide idatziek bertsio ezberdinak eman dizkigute egindako oihuaz. Batzuek «Gora Euskadi eta askatasuna» izan zela esan digute, esalearentzako ondorio judizial gutxienerako bertsioa hobetsiz eta euskara idatziaren arauetikoa begirunez («ta» ez da Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* jasotako hitza). Hurrena «Gora Euskadi ta askatasuna» ekarri digute, Euskaltzaindiarekiko errespetu gutxiagoz, baina esaldiaren forma fonetikoaz gertuago eta esalearentzako ondorio judizial hutsal berdinekin. «Askatasuna»-ri letra larria ipini diote beste batzuek, baina balio etiko garrantzitsu baten kontzeptu abstraktuari dagokion hitza izanik ez du zertan besterik adierazi. Beste hitz guztiekin batera «Ta»-k ere letra larria balu legoke esalea zigor-arriskuan (goian bezala testuaren hasieran doalako hazi ez bazaio, noski). Baina horietatik guztietatik zein da esaleak une jakin batean esan duena? Ezin jakin. Idatziz jasotzen duten bertsio guztiek oihuaren interpretazio bakar bat emango dute, interpretazio hori zuzena den jakin gabe. Esaldia bere anbiguotasun osoan (interpretazio guztiekin) erabiltzea izan liteke esalearen asmoa. Eta esalez aparte interpretazio egokia zein den badakiela esaten duen inor oker dabil. Baina hori berdina zaio zigor gose dabilenari.

Ezagutzen ditut nik konektagailu logikoekin maiteminduta, «Gora eta!» edo «Gora ez!» oihukatuko luketenak. Kontuz ibili eta «Frantziako hegoaldean» egin beharko dute, badaezpada.